

MATRIZE SADOMASOKISTA:

BOTEREA, MINA ETA EGIA EGUNGO GIZARTEAN

Tesiaren egilea: Mitxelko Uranga Alvarez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Filosofia

Tesi-zuzendaria: Eduardo Apodaka eta Joxe Azurmendi

Tesiaren laburpena:

Hipotesi moduan planteatuz gero, hiru dira hipotesi nagusiak tesian.

Lehendabiziko hipotesiaren arabera, Modernitateko botere-harremanak *matrize sadomasokista* izenarekin bataiatutako harreman-logika baten arabera estrukturatzen dira; sadomasokismo sexualaren harreman sexual zein erotikotetan gertatzen den matrize sadomasokista modernoarekiko analogoa da: horren arabera, alde batetik, harremanaren polo biek elkar behar dute, eta, bestetik, menderatuak ulertu du azkenik bera ere badela harremanari buelta emateko gai, bere antagonikoari betiko loturik jarraitu behar badu ere.

Modernitateak amaitu zuen Modernitate aurretik ekoizitako gizaki motarekiko oso bestelakoa den gizaki mota berria, zeinek, botere-nahiaren arabera, aurpegi ezberdin bi ager ditzakeen. Alde batetik, txanponaren aurpegi batean botere-harreman sadomasokistetan murgildurik dagoen gizaki moderno *neurotikoa* (erreaktiboa) legoke, dominatu-masokista zein dominatzaile-sadiko gisa ager daitekeen gizakia —paper biak aldakorrak dira—; gizaki neurotikoak, botere-nahi pasiboreaktiboa zuen horrek, ez dio beldurrari aurre egin nahi, ezgai da, eta harreman sadomasokistaren logikaren gatibu amaitzen du —dominatzaile-sadiko zein dominatu-masokista gisa—; bestetik, txanponaren beste aldean, gizaki moderno *histerikoa* (aktiboa) aurkituko genuke, dialektika sadomasokistatik askatu eta ihes egiten saiatzen dena, dominatzaile zein dominatu izateari uko egin nahi diona. Gizaki histerikoa, botere-nahi aktiboa duen neurrian, beldur eta arriskuei aurre egiten saiatzen da, energiarekin eta irudimenarekin bide berriak ahalbidetzen.

Bigarren hipotesiaren arabera, Hipermodernitateko botere-harremanak Modernitatean ez bezala estrukturatzen dira, logika ezberdin eta berri baten arabera. Logika hipermodernoa bi ezaugarri nagusitan bereizten zaigu: lehenik eta behin, Hipermodernitatean gizaki berri bat ekoizten da, modernoarekiko ezberdina den gizaki mota berria, behin gizaki modernoak bere buruari ukatzen zion egiaz ohartzten den unean; gizaki sadomasokista hipermodernoak ikusten du boterea ez dela dominatzaileak berezkoa duen ezer eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa dominatzaile bilakatzea botereduna izateko, dominatu-biktima rola ere sadiko-lanak egin ditzakeela zalantzan egon barik. Sadomasokista hipermodernoak ulertu du jada ez diola zertan harremanari buelta eman, dominatzailearena egiteko gai dela dominatzaile gisa agertu barik. Bigarren, gizaki modernoak lekua utzi dio gizaki

hipermodernoari. Sadikoak eta masokistak lekua utzi diote sadomasokista den gizaki berriari, sadiko, masokista zein biak aldi berean izan daitekeen gizakiari. Modernitateko gizaki neurotiko-erreaktiboak sadomasokista faltsua bilakatu da, *ziniko* hipermodernoak, Modernitateko gizaki histeriko-aktiboak benetakoa sadomasokista bihurtu den bezala, *kiniko* hipermodernoak. Azken gizaki mota horrek, bere aurrekari modernoak ez bezala, utzi dio botere-harremanetatik askatzen saiatzeari, ulertu baitu ez dagoela horiek saihesterik, eta jarkitzeari eta bide berriak ahalbidetzeari ekin dio sutsuki.

Hirugarren eta azken hipotesiaren arabera, desertu hipermodernoak utzi du gizakia iparrorratzik gabe berriz ere, galdurik, estetiko hutsa edo modernoak ez den komunitate berria sortzeko ezgai agertzen zaigularik. Desertu hipermoderno horren aurrean, komunitate etiko hipermodernoak, komunitate sadomasokista benetakoa, alternatiba gisa agertzen zaigu, fundamenturik gabeko etikan edo ekibalentzien zerrendetan oinarritzen den komunitate singular-plural eta plural-singularra baita berak.